



ZARAUZKO IKASTOLA
ESKOLA-KIROLA 2020/2021

7.- SAIOA

- BEHARREZKO MATERIALA: Baloï bigun bat, **(etxetik ekartzeko esan).**

BEROKETA

“Ehiztariak” [10 min]

Bi ehiztari baloi bigun batekin harrapatzaile lanetan eta beste kide guztiak iheslariak izango dira. Paseak emanaz, aurkariena gerturatu eta hauei baloiaz jotzea lortu behar dute. Baloiaz ematen dion kidea, hortik aurrera, haiekin batera ehiztari jardungo da. Horrela, kide guztiak ehiztari izatera iritsi arte.

***Aldaera: baloia duenak ezin du korrikarik egin.

ATAL NAGUSIA

“Bikoti-bakoiti” [10 min]

Bi taldetan banatuko gara. Ilaran jarriko gara bi taldeak, elkarri bizkarra ematen. Talde batekoak bikoitiak izango dira, eta, besteak, bakoitiak. Begiraleak zenbaki bikoiti bat esaten duenean (adibidez, 2), bikoitiek bakoitiak harrapatu beharko dituzte. Begiraleak zenbaki bakoitia esaten duenean, alderantziz. Korrika zuzen egin behar da.

*** Alderak: erabili eragiketak, zuzenean zenbakiak ez diren esaldiak “urteko hilabete-kopurua” “bi egun osok duten ordu-kopurua” “maratoi baten kilometro-kopurua” “dozena t`erdi”... Taldekideak elkarri bizkarra emanez zutik egon orde, eserita jarri. Eserita eskuak buru gainean dituztela, eserita eskuak buruan eta mingaina kanpoan, etzanda gora begira, etzanda behera begira...

“Azeriak, oiloak eta zizareak” [20 min]

Talde osoa 3tan banatu. Azeriak, oiloak eta zizareak. Bakoitzari bere etxea izango den txoko bat zehaztu zelaian. **Azerien taldeak**, oiloak harrapatu beharko ditu, baina adi ibili beharko dira, zizareek, eurak harrapatu gabe. **Oiloak**, zizareen atzetik joango dira, aldi berean, otsoengandik ihes egin beharko dute. **Zizareak**, otsoak harrapatzera joango dira baina oiloak bistatik galdu gabe. Beste kideren bat harrapatzean, norbere etxera eraman beharko dute, ezin izango direlarik bide horretan harrapatuak izan. Besteen etxean preso daudenak askatzeko, talde bereko kideren baten bostekoa jaso behar da. Talde oso bat harrapatua izatean amaitzen da.

*** Alderak: Taldeak aldatzen joan gaitezke dinamika mantentzeko. Partidetako bat luzatzen ari bada eta ez badira etxetik irteten, “etxeak desagertu dira” oihukatuta taldeak babesleku gabe geratzea adostu dezakezue jolasa hasi aurretik.

(jolasa ezagutzen dute. Taldeak osatu eta badakite zer egin behar duten)



Atsedena dia ura edateko [3-4 minutu]

Errota [10 min]

Harrapatzaile bat eta gainontzeko denak borobilean, kanpora begira eta eskuetatik emanda. Borobileko kide bat izango da harrapakina. Harrapatzailea borobilaren beste aldean jarriko da eta bere harrapakinaren bila joango da. Borobilean dauden denen artean, bueltak emanda, harrapakina harrapatua ez izaten saiatu beharko dira.

LASAITZE FASEA

“Imitatzailearen jolasa” [5 min]

Borobil batean jarriko dira. Taldeko bat borobiletik atera eta taldeari bizkar emanda eta begiak itxita itxoingo du. Bitartean, taldekide bat “zuzendari” izendatuko dugu. Kanpoan zegoen kideari etortzeko esango diogu eta borobilaren erdian jarriko da. Zuzendariak egiten dituen keinuak imitatu beharko dituzte gainontzeko denak. Zuzendaria, keinuak aldatzen joango da. Zuzendaria nor den asmatu beharko du erdikoak eta ingurukoak disimulatu.